

Balbea heriotzearen gaineko bakarrizketea Kotxepinen

16. orrialdea

Aldaik eta Mendizabalek 22-21 galdu eben Bizkaia finala

Galdu bako txapelketea egin daben arren, Bizkaia Frontoian jokaturako finalean 22-21 nagusitu jakien Olatz Arrizabalaga eta Uxue Oses. Partiduan ez eben amore emon eta hogeta batera bardindutera heldu ziran baina atzenengo tantua Arrizabalaga eta Osesentzat izan zan. **15. orrialdea**




Igorreko eta Zeanuriko abesbatzek Bilbon kantauko dabe

16. orrialdea

Edurretako argazkiak dagoz barruko orrietan

Edurra gero eta gitxiago egiten dauala eta albiste bihurtu da neguan edur egitea. Albiste ona. Eta jenteak kale-
ra urten eta argazki ederrak egiten ditu. Urtailaren 18an edurra egin eban Arratian eta gure irakurle eta Meteo
Arratiako Mikel Ugarrizak bialdutako argazkiak dagoz ikusgai barruko orrietan. **10., 11., 12. eta 13. orrialdeak**

Dima, Oba. Argazkia: Unai Loiola.



Mozorroek hartuko ditue kaleak



Zezeilaren 17 eta 18an, bariku eta zapatuan eta 21ean, martitzen karnabal Bedian, ospatuko dira Aratuste, Inauteri edo Karnabalak Arratian, Ubiden eta Zeberion. Igorren egun biko egitaraua prestatu dabe. **9. orrialdea**

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Usansoloko Ospitalean Pediatria eta erditze gunek eskatzen dabiz

Pediatria zerbitzua eta arrisku bajuko erditzeen gunek bat eskatzeko sinadura bilketea abiatu dabe Barrualdea osatuz plataformakoek change.org-en. Usansoloko ospitale publikoak, 70 herriri eta 309.000 biztanleri, tartean, Arratiakoei, emoten deutse zerbitzua. **5. orrialdea**

EKIN eraiketak

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTSU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)

eraiketak@construccioneseekin.com

ARRATIA, UBIDE

Arratia Garbia kanpaineak aurrera jarraituten dau

Hamabostaldi honetan, Arratiko Udalen Mankomunitateak kalean informazio puntuak ipini eta berbaldiak egingo ditu Bedian, Diman, Lemoan, Areatzan eta Ubiden. Gainera Argazki eta Bideo Lehiaketea dago martxan, Nik be bai 2023 izeneko. Argazki eta bideo, modalidade bakoitzeko irabazleek 100 euro izango dabe saritzat. **7. orrialdea**

#nikbebai2023

HONDAKINEI BURUZKO ARGAZKI ETA BIDEO LABURREN LEHIAKETA

GAIA: HONDAKINEN PREBENTZIO ETA BIRZIKLAPENARI BURUZKO ARGAZKIAK EDOTA BIDEO LABURRAK (gehienez 30 segundukoak)

EPEA: otsailaren 13tik ekainaren 18ra

SARIAK: 100 € modalitate bakoitzeko

AREATZA

Mari Cruz Guruzeta, Areatzako memorian

Mari Cruz Guruzeta (1871-1934) emagina eta Areatzako Emakume Abertzale Batzako sortzailea, Areatzako memoria kolektiboan dago, herrian dagoan bere izeneko plaza bateri esker. Bere bizitzako gertakizun batzuk kontau deusaz BEGITUri Juan Mari Arregik, Mari Cruz Guruzetaren lobak.

1932an gertatu zan eta Errepublikari garaiako Areatza dakar kontakizunak. Guardia Zibilarren desakamentu bat herrian egoan eta, EAJ-PNVren abertzaletasuna pil-pilean. Espainiako Errepublikak ez ebazan ondo ikusten mitin hareek eta zigortu egiten ebazan hizlariak herriko plazea garbitutera, esate baterako. **8. orrialdea**

Literatura txokoa

GU GABE ERE

Oñatin jaiotako kazetaria dogu Itziar Ugarte Irizar. Oin Berrian idazten dau kultura gaietan eta lehenago Argian.

Gustura irakurri dot bere lehen poesia liburu hau. Irudipena euki dot zeozelan lortzean dauala Irati Jimenezek Virginia Woolferi jarraituz dinoana: komeni dala amaren hizkuntza literaturara ekarte. Ez da bigun eta gozoxka baina ez dau behar ez dan arantzarik gehitzen; orekatua, beraz, emozinoetan, bildur eta lotsa barik adierazoten baditu be.

Emoten dau bere burua eta ingurua lotzeako, kokatzeko eta munduari begiratzeko erabilten dituala bere poemak, ikusten dauanari eta gertatzen danari adi egoteko modua dirala.

Tonu apaleko poemak dira, xumeak, baina era berean idea sakonak be agertzen dituenak.

Eguneroko hizkera poetiko bihurtua; egunerokotasunean begirada artistikoa ipinteko ohiturea daukaren bozgorailu dira poemok. Japoniako haikuak nola, halaxe gurtzen dabe momentua; gagozan lekuan, urrunera joateko behar barik, dagoanagaz konturatu eta arte bihurtzea da kontua. Espiritual samarrak be badira alde horretatik.

Bizitzaren inguruko gogoetak aurkituko doguz, hurreko hiru personen heriotzak sortuak, beti be bizitzaren aldeko apustu egin ez eta kontrastez beteak, bizitza bera letxe; belaunaldien arteko loturak eta zelan eragiten deuskun gure aurrekoen munduak.

Agertzen diran esperientziak ezagun egiten jakuz, norberak be sentidutakoak, intimo bezain unibersal, eta plazera izaten da berba egokietan emonak ikustea inoz norberarenak be izan diran sentimentu eta pentsamentuak.

Poesia intimo eta esperientzia personalean oinarrituak badira be, beti dago presente gu-a, ingurua; jente artean eta leku jakinetan dagoan ni-a da Itziar Ugarte Irizarrena poema honeetan.

Hortaz, hurbiltasuna, oreka, idazkera zaindua baina handiputzik bakoa, momentuaren deskribapena eta goratzea eta inguruko jenteagaz eta lekuagaz lotuta dagoanaren ahotsa agertzen jaku poema liburu honetan.

Maite Artabe Urkiri



Itziar Ugarte Irizar

Gu gabe ere

Susa argitaletxea, 2021

96 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zezeilaren 13tik 19ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 927

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 20tik 26ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15

Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.

Zezeilaren 27tik martiaren 5era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7

Tel.: 94 631 73 11 eta 629 463 048

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era orduro. Jaiegunean orduro

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunean: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunean: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunean 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunean: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunean: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunean: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunean: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunean: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduro.

Jaiegunean: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-

Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunean,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunean: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunean: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunean: 07:00etatik

21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunean ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunean: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta

jaiegunean ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunean:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunean:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunean: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunean: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunean: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunean: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresea (Arantzazu, Areatza, Artea, Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Ugutz Zuluaga (Igorre) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkarteenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daiteke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeke.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea. Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XIX).
Kale berbakunea sustatu guran

ARIKETAK (ERANTZUNAK HURRENGO ZENBAKIAN)

- Joango _____ (gara) beherapenetara Miren?
_____ (ez daukat) gogorik Maite.
Benga! Sos batzuk _____ (daukadaz) aurreztuta eta.
Bai, baina zeozer erosten _____ (badeustazu) bakarrik!
Hik _____ (daukazu) arpegia!

ERETXIA

Aldaketa klimatikoa

Azken urtea, bosgarren berroena izan da erregistroak dagozanetik. 2022 urteak barri txar asko ekarri deusku klimari lotuta eta honeek gero eta txarragoak izatea espero da hurrengo urteetan lehenbailehen ezer egiten ez badogu. Hona hemen atzen urteak itxi deuskuzan datu kezkarri batzuk:

Euskal Herrian ia 3.000.000 persona bizi gara eta horreen erdia baino gehiago urietan; karbono dioxidoaren emisinoak gora egin eben pandemia ezkerotik; Euskal Estatistika Erakundearen arabera 13.539.648 milio tona CO² isuri ziran pasau dan urtean.

Temperaturea ohikoa baino 1,8 °C altuagoa izan da eta hori historiako udarik beroenetarikoa pasau dogula. Guztira igazko bagila eta abuztua bitartean 3 bero bolada pasau genduzan, kostaldean tenperaturak 40 °C-tara heldu ziran eta garagarriaren 18an EAEko tenperaturatik altuena erregistratu zan 43,6 °C La Garbea estazino meteorologikoan (Laudion).

2021 eta 2022 urte hidrologikoa serie historikoko hirugarren lehorrenetarikoa izan da, prezipitazioen aldetik normalean baino %25 gutxiago egin dau eta arazo ugari ekarri ditu populazioarentzat eta baita ortuan lan egiten dabenentzat zein animalietatik bizi diranentzat be.

Energia prezioen aldetik; gero eta gehiago ordaintzen dogu gure etxeke argiaren fakturea. Garbigailua jartzea, sukaldatzea edota xurgagailua pasatzeak ordu gitxitako gauzak badira be, diru asko kostetan jaku eta hori ez gertatzeko goizero mobikorrean sartu eta ordu merkeena zein dan begiratzen denporea pasetan dogu. Bada gai honetan be marka apurtu zan eguna: 2022ko martiaren 9a izan zan. Egun horretan megabatio orduko 545€ ordaindu genduan eta ordurik garestiena arrastian izan zan, 700€/MWh.



MIKEL UGARRIZA
BEOBIDE

Meteo Arratia kontuaren arduraduna

Baso suteen urterik txarrena izan da atzen hiru hamarkadetan. 310.000 hektarea erre ziran guztira Iberiar peninsulan eta Arratia bailaran be, baso suteek kalte ugari egin eben Zeberio eta Zeanurin. Australiako Unibersitate Nazioanalak, Nature Geocience aldizkarian argitaratu eban ikerketa baten arabera (2019ko urtailaren 21a) baso suteen kasuan, guztiz kiskalitako zugatzak eta natura errekuperetako 80 urte arte iraun daikela.

Klimaren alde gogorrenetik pasauta; konzienteak izan behar gara gertatzen dabilena errealdadea dala eta danoi kalte egiten deuskula osasunaren aldetik gehienbat: muturreko fenomeno meteorologikoek eragindako lesinoak, gaixotasunak, heriotzeak, desnutrizinoak, arnas gaixotasunak, elikagaien eta ur-horniduren segurtasun eza sortuz.

2022 urtea historiako txarrenetariko bat izan da, baina hurrengo urteetan guztiok batera zerozer egiten ez badogu; uda beroagoak, euri eskasia eta sikate gehiago, neguan gero eta edur gitxiago ta itsasoaren maila igon eta kostaldeko ia puntu guztiak urpean geratuko litzatekez baita barrukaldeko hainbat leku be.

Gertaera guzti honeek lehenbailehen gelditzea nahiz eta ezinezkoa izan, urtero Nazio Batuen Erakundeak klimaren inguruko batzar nagusia prestatzen dau. Igaz COP27 izenean Egipton egin zan Sharm el-Sheij urian eta negoziatzino gogorren ondoren, garapen bidean dagozan eta klima aldaketeagazko kalteberak diran herrialdeentzako funts bat eta elikagai eta nekazaritza segurtasuneko plan barri bat sortu eben, baina COP28ren helburu nagusietako bat munduko tenperaturearen igoerea 1,5 °C-tik gora mugatzea da.

Aurreko guztia laburbilduz; aldaketa klimatikoak gero eta kalte gehiago egingo deusku al bait arinen neurriak hartzean ez badoguz. 2022 urteak argibide kezkarriak itxi deuskuz eta 2023 urtea txarto hasi dogu. Zer pentsetan dozue pasauko dala?



LUMATUTEN



JUAN MANUEL
ETXEBARRIA AYESTA

Kandelario lario

Kandelario eguna zezeila-
ren 2an ospatzen dogu
eta gaur egun indarra
galtzean joan arren, lehenago
jai handia eta polita izaten zan.
Elektrizidade argindarra gure ba-
serrietara heldu aurretik, besteak
beste, galtzu-zuzia, kurtzulua,
karburo ontzia eta batez be
kandela argia erabilten zan
iluntasuna argitzeko etxe barruan
zein kanpoan. Kandela baten
osagai zaharrak, metxa eta argi-
zaria ziran. Argizaria erlauntze-
tako erleen abaietarik harakoa
izaten zan, ezia hustu ondoren
geratzen zana urturik eta hortik
daukagu lehenengotako kan-
delen ezti kolorea. Geroagora,
beharrianen porasuz, beste
osagai batzukaz egiten hasi ziran
kandelak, animalien gantz edo
koipeagaz eta aurrerakuntzak
asmatu ahala, osagai kimikoakaz.
Kandelen euskarriak era asko-
takoak izan dira eta badira gaur
be. Zaharrena, zurezko argizaiola
izan dogu bere kandela mehe

eta horia oboan batuta. Jakina,
kandela izetuak, kandelanegarra
dariola egoten dira euskarria eta
zorua be zikinduz. Horrexegaitik,
metalezko euskarri erosoagoak
agertu ziran, batez be eleizetan,
kandelanegarren garbikuzia ne-
ketsua zalako.
Goazen Kandelario egunera.
Egun horretan eleizan bedeinka-
tzen ziran kandelak, gaur egun be
bai herri batzuetan, eleizan ber-
tan erabilteko edo eta bizitzako
edozein egoera arrikutsutik ba-
besteko. Erremedio hau zientziaz
kanpkoa izan arren sano zabal-
durik egon da gure herrietan.
Noz erabilten zan? ba, besteak
beste, inizitu eta guztiko ekaitze-
tan, heriotza begiretan, gauzko
parte txarrekoen bildur egoere-
tan, eta holako kasuetan. Egun
hau, esakera eta abesti bidez
be ezetuten dogu. Aikomenzan
esaera batzuk: "Kandelario bero,
Pazkoetan dar-dar"; "Kandelarioz
euria, laster udabarria"; "Kande-
larioz epel baño otsoa ardi arten
hobe". Abesti polit bat be ba-
daukagu Kandelario egunerako,
aikomen: "Kandelario-lario (h)
atxari ura dario, makatzari ma-
dari, eutsi Peru (h)ankeari". Eutsi
euskal ohiturei!

ZERTZEAN



IGOR ESTANKONA

Mencarelli, Castiglione, Macchieraldo.
Aviazione Legionariako hiru pilotuek
1937ko apirilaren 7an Igorre erdietsi
zuten zerutik.
Hori dio komikiaren kontra-azalak.
Baina, egiazki, Blasida Pujana ez zuen Macchieral-
do tenienteak hil.
Ustekabe handia litzateke -Aviazione Legionariak
hainbeste pilotu eta
hainbeste hiltzaile bitzitzen-, justu bera izatea.
Arrazoirik onenean, beste bat izango zen, baina
bera ere bai,
ze bera ere bazebilen sartuta proiektu handi batean:
mende laurden iraun zuen Italian,
berrogei urte Espainian, Brasilen ikusi dugu berpizten
inoiz ez da hil, moztarroak dauzka,
euskaraz egiten duten haurrei eratzuna jarri
zietenen obsesioa
edo bestela eskimalen hizkuntzan ari zenari Yukonen

Blasida Pujana

edo bestela grekanikoz egiten duenari Kalabrian.
Esan gura baita: matxismoak hil zuen Blasida Pujana,
autoritateak, Jainkoak, familiak, Fiat-ek, Siemens-ek,
eta hitzak geratu zaizkigu sartuak barruraino,
Europako giro itogarri hori, oraingoaren hain antz
handia zuena,
tatuajeak, otso-saldoak, Leopard tankeak,
eta ustekabe handia litzateke komikiak egiazko
pasarteak kontatzea
Maitek aspaldi joan ziren baserriak eta hostoak eta
zeruak marraztu zituetako
eta irudiek dirudite urmargoak ume baten negar
anpuluetan
eta itsasontziak ateratzen dira portuetatik gauean
eta Dimako krida bat, ume guria bera,
hilda daroate Arratia ibaiaren ertzetik,
historiaren korronte handiaren ertzetik eroango
balute bezala.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo-
duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkeru, eskatu
egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Jagokonari erredakzinora tarta bat ekarteko eskatu behar deusat:
hau, BEGITUren 400. zenbakia da, eta benetan be, erredakzinoan
ospatu beharrekoa iruditzen jata. 400 (lau bider ehun) zenbaki!
zenbat berba!
Hogei urte ditu BEGITU aldizkariak, jaio zanetik hasi zan berbetan
eta, duda barik, zeresana eukiten dau. Egia harrapaezinetik ahalik eta
hurren ibiltzen da beti, bere itzelezko berba jarioagaz, berba erreka
bat sortuten. Egia bezain gardena eta freskoa izan gura dauan Arra-
tiako berbazko erreka bat.
Hogei urte, hogeta bat laster, 400 zenbaki, Arratian gertatuten da-
nari begira eta ahalik eta ondoen kontetan, eta arratiarrei entzuten
eta euren berbak jasoten. Arratiarrak... beti be zentzu zabalean hartu-
ta, jakina! Ez da ospatzekoa?
Nagusi, tarta bat erredaktoreontzat!





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



agoa
hagin klinikak

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zentzua: 901
R.P.S. 31/06

IGORRE

Barikuro elkarretaratzeak egiten ditue Igorreko eskolan, hezkuntzaren egoerea salatuteko

Erredakzinoa

Urtilaren 20tik, barikuro, Igorreko eskolan batzean dira irakasle, guraso eta hezkuntzaren egoere-agaz kezkatuta dagozan hainbat lagun, eskola "publikoa, propioa eta euskalduna" aldarrikatzeko. Hitzordua, barikuetan, 09:00etatik 09:10era da, LHko pasabideko aterpean eta LHko sarrera nagusian, txandaka. Konzentrazinook zemendian eta abenduan egindako greben jarraipen moduan antolatu ditue. Zemendiaren 30 eta abenduaren 14an, eskola publikoko

beharginek greba egun bi egin ebezan, egoerea eta Hezkuntza legearen proiektuaren kontra protesta egiteko. Hezkuntza legearen ardatza eskola publikoa izatea; segregazioari aurre egitea; inbersino eta baliabide nahiko dituan Hezkuntza lege propioa; euske-rea erdigunean ipintea; langile guztien enplegua eta lan baldintza egokiak; merkaduen interesen gidarizatik eta enpresa pribaduen negozio esparrutik kanpo egotea Hezkuntza, eta Hezkuntza lege parte-hartzailea eta langileak aintzat hartuko dituna egitea eskatzen dabe, besteak beste.



LEMOA

Opari bonuak dagoz herriko komertzioetan

Erredakzinoa

Lemoan, martiaren 15era bitartean egiten dan erosketa bakoitzeko 30 euroko 26 bonu zozketatuko dira. Horretarako, erosketearen txartela komertzioan bertan egongo dan ureztaontzian sartu behar da. Txartel horretan telefono zenbakia idatzita egon behar da eta ureztaontzian komertzioan bertan gastautako txartel bat baino gehiago sartu ahal izango da. Lemoako komertzio bakoitzak 30 euroko bonu bi zozketatuko ditu martiaren 16an. Kanpainan komertzio

desbardinetako zozketetan be parte hartu daiteke. Komertzio baten zozketatzen diran bonu biak komertzio horretan bertan gastetako izango dira. Bonuok apirilaren 15ean iraungiko dira. Kanpaina honetan parte hartzean daben komertzioak honeek dira: Luzea beauty, Tximeleta gozoki denda, Lezat estetika zentroa, Laiane ileapaindegia, Lemoako Batzokia, Merceria-perfumeria Josier, Amorrortu taberna, Argazkilune, Abrasivos Montero, Kresala kafetegia, Atxeta taberna, Bizkarra okindegia eta Lemoako Farmazia.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Sinadura bilketea abiatu dabe Usansoloko ospitalean Pediatría eta erditze zerbitzuak eskatzeko

Usansoloko ospitalean 2023an obrak hastea aurreikusita dagoz. Pediatría zerbitzua eta arrisku bajuko erditzeen gune bat eskatzeko sinadura bilketea abiatu dabe Barrualdea osatuz plataformakoek change.org-en. Atxikimentua talde modura emon gura dauanarentzat barrualdeaosatuz23@gmail.com helbide elektronikoa dago. Eskaera horren errazoiak azalduten dauan bideoa be badago begitu.eus webgunean.

Erredakzinoa

Izan be, Usansoloko ospitale publikoak, 70 herriri eta 309.000 biztanleri, tartean, Arratiakoei, emoten deutse zerbitzua. Aurten, ospitalea handitzeko obrak egitekoak dira, baina lan horreetan, ez Pediatría zerbitzurik, ez arrisku bajuko erditzeko gunerik ez dagoz aurreikusita. Zerbitzu honeek oinarrizko osasun zerbitzuak dira eta ospitale txikiagoetan be badagoz. Pediatría eta arrisku bajuko erditze gune barik, Arratia, Nerbioi, Durangaldea, Lea-Artibai, Udaibai eta Airaldea eskualdeko eta Bilbo Handiaren zati bateko erabiltzaileak, Basurtu eta Gurutzetako ospitaleetara joan behar izaten dira, kilometro gehiago eginda eta trafiko handia jasanda. Plataformakoen ustez, Usansoloko-Galdakaoko Ospitalean, arrisku bajuko erditzeen guneak ipintea, ahalbidetuko leuke erditze eredu

humanizatuagoak egitea; andrak libre mobiduteko espazioak, intimidadea, zaintza eta minaren kudeaketarako baliabideak izan dagiezan. Gainera, ospitalean holangoak izateak Gurutzetako

Pediatría zerbitzua eta erditze eremuak arinduko leukez, Gurutzetako erditze espazioak be egokitze aukerea emonez, umeak hobeto atendituko eta erditzeak humanoagoak egiteko.



AREATZA

Etxebizitza alokatzeko gazteeentzako dirulaguntzen ordenantzea onartu dau Areatzak



Erredakzinoa

Behin-behinean onartu zan zezeilaren 7an, Areatzako gazteei etxebizitzak alokatzeko Areatzako Udalaren dirulaguntzen ordenantza proiektua, EH Bilduren

aldeko 5 botogaz eta EAJ-PNVren kontrako 3 botogaz. Orduetik, hila- beteko epea dago alegazinoak aurkezteko. Dirulaguntzak arautzeko helburua dauka ordenantzeak eta dirulaguntzen helburuak gazteei eman- zipazino prozesuan lagundutea eta Areatzako udalerrian, gazteen artean, etxebizitza bat alokairuan eskuratzeko aukerea sustatzea da. Dirulaguntzak eskatu leikiez, etxebizitzarik ez daukien 18 eta 35 urte bitarteko gazteek. Bizikidetz- unidateko kideetako bat gitxienez egon behar da Areatzan errolda- tuta, gitxienez 3 urteko antxinata- sunagaz. Bizikidetz unidatearen diru sarrerak, urtean 35.000 euro gordinera arte izango dira. Aloka- tutako etxebizitza Areatzan egon behar da eta alokairuaren kostua

ezin izango da hilean 600 euro- tik gorakoa izan. Dirulaguntzaren zenbatekoa etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioaren % 50 izango da, komunitade gastuak eta etxebizitzaren eranskinak kenduta. EAJ-PNVren kontrako botoa EAJ-PNVk ezezkoa emon eban informazinoa jaso eta botoa emoteko batzarraren artean ez ebelako astirik eduki ordenan- tzea aztertze. Euren esanetan, bilkura osoko deialdia barikuan jaso eben eta martitzenean bozkatu zan ordenantzea, "kon- tuan izanda, informazinoa eta aztertze eta ekarpenak egiteko aukerarik ez dala egon, kontrako botoa emotea ebatzi dogu" adie- razo deusie BEGITURI.

IGORRE

Egungo alkatea, Illart Gumuzio izango da EH Bilduren Igorreko alkategia

Erredakzinoa

Illart Gumuzio Larrazabal, egungo alkatea, izango da 2023ko Igorreko udal hauteskundeetarako EH Bilduren hautagaia. "Oin dala lau urteko ilusino eta gogo berberagaz, baina orduan baino esperientzia askoz gehiagogaz" ikusten dau bere burua.

Legealdia gatxa izan dan arren, pozik dago egindako lanagaz. "Pandemiak guztiz baldintzatu dauan legealdia izan da, eta ha-ta guzti be, herritarak erdigunean ipintea lehenetsi dogu udaletik. Horren adibide da Bonodenda kanpaina indartzeaz gainera, ezohiko kanpaina egonkortu izana" dino Gumuziok.

Horrezaz gainera, "arnas luze-ko hainbat proiektu amaitu edo amaitzeko bidean daukaguz: eskolako patio barria, auzoetako bideen konponketea edo gazte-gunea" berbarako.

Igorreko EH Bilduren azken urteetako herri proiektutik, Ilbanduz Indartu prozesuan definiduten

dabizen proiektu barrira egin gura dabe saltu alderdian. "Atzen urteetan legez, herria eraldatzen jarraitu gura dogu igorreztarraz bat" eta horretarako Bizi Igorren 2030 parte-hartze prozesuari garrantzia handia emoten deusie Igorreko EH Bildukoek.



BEDIA

Ikasketak aukeratuten lagunduteko berbaldia egongo da Bedian

Erredakzinoa

Hamasei eta hamazortzi urte bitarteko gazteei etorkizunean aukeratu behar dituen ikasketen inguruko zalantzak argitzen eta galderak erantzuten lagunduteko, Bediako Udalak berbaldia antolatu dau zezeilaren 16rako, 17:30ean liburutegian.

Batxilergoa amaitutakoan, gazteek aukeratu behar izaten dabenez euren etorkizun profesionala baldintzatuko dituen ikasketak. Ebatzi gatxa da, kontuan izan

behar dira norberaren gustu eta trebetasunak baina baita zein ikasketaren bidez eta non ikasi daiteken hori hartu behar da kontuan. Ze ikasketa egin behar dodaz gustetan jatan horretan lan egiteko? Zeintzuk dira gustetan jatazan ikasketen lan urteerak? Ze baldintza behar dodaz gura dodazan ikasketak egiteko? Niri gustetan jatan arloan, ze aukera dagoz ikasteko? moduko galderei erantzungo deutse Irene Barrena orientatzaileak berbaldian.



LEMOA

Berrerabilpena bultzatuteko jarduerak eratu dauz Lemoako Aisialdi Batzordeak

Erredakzinoa

Gizarte moduan daukaguzan konsumo ohituren inguruko hausnarketea plazaratzeko asmoz, hainbat teknikarik eta arduradunek osotuten dabene Aisialdi Batzordeak, urtailetik martira arte, Ostera (be) bueltan erabili izenpeko programea garatu dau. Aisialdi Batzordea sortu zan Udaren intereseko gaiak modu integrarean landuteko; hau da, gai bera arlo desbardinatetik helduteko. Kultura, euskera, gizartegintza eta bardintasun teknikarik; Ludoteka, Gazteleku eta Liburutegiko arduradunek; eta alkateak osotuten dabe batzordea.

Holan landuko dan lehen idea konsumo ohituren hausnarketea izango da. Hori dala-ta, Bardintasun arloak, tailer bat antolatu eban hilekoa jasoteko produktu jasangarriak eta berrerabilgarriak

jakitera emoteko eta sortuteko zezeilaren 10 eta 11n.

Kultura Siletik eta Jai Batzordetik berrerabilpena Aratustei begirakoa da: jentea animauko dabe etxeko erropak erabiliz prestatzera moztarra. Gizartegintzak barriz, Truke azoka antolatuko dau martiaren 25ean. Gaztelekuan, janari hondarrak aprobetxetako errezetak erakutsiko deutseez gazteei sukaldaritza tailerrean. Ludotekan, zirkuitu bat sortuko da txoko guztietan birziklapena landuteko asmoagaz. Sormena, esperimenezina eta mobimentua landuko dira bertan. Liburutegian, liburu trukea sustatuko da eta edadekoentzat egitarau oso bat prestatu dabe. Martiaren 2an, berrerabilpen esku lanak egingo ditue edadekoek eta martiaren 9an eta 30ean, dokumental emonaldiak egongo dira, eta os-tean gaiaren inguruan eztabaidak.



ZEBERIO

Liztor asiarrak harrapetako tranpak bananduko ditu Udalak



Kanpainearen garrantzia eta igazko kanpainearen balorazinoaren barri be emongo dau Udalak. Tranpen osagaiak zeintzuk diran azalduko da bertan, eta batez be lehenengo aldiz kanpainara batzean diranentzat, zelan egin tranpa horeen jarraipena azalduko da.

Erredakzinoa

Liztor asiarrak (*vespa velutina*) espezie inbaditzailearen kontrako urteroko kanpaina ipini dau martxan Zeberio Udalak. Zezeilaren 25ean, 11:00etan, Gaztelekuan informazinoa emoteko berbaldia egongo da eta Asiako liztor erreginak harrapatzeko tranpak bananduko dira.

Erleak babesteko

Oin dala hamarkada bat baino gehiago heldu zan Asiako liztorra EAera eta 2015ean hainbat liztor-habi topau ebezan Zeberion. Espezie inbaditzaile honek, hemen ez dauka etsai naturalik eta bere dietan erleak dagoz. Erleen eskasiak, erlezainak kaltetzeaz gainera, desoreka ekologikoa dakar inguruan. Hori dala-ta, Zeberion, urtero, liztorrak harrapetako kanpainak egiten dira.

ARRATIA, UBIDE

Hondakinen gaikako bilketea sustatzeko informazino puntuak eta berbaldiak egongo dira hainbat herritan

Arratia Garbia kanpaineak aurrera jarraituten dau eta hamabostaldi honetan, Arratiako Udalen Mankomunitateak kalean informazino puntuak ipini eta berbaldiak egingo ditu.



Erredakzinoa

Zezeila amaitu orduko, Bedian, Diman, Lemoan, Areatzan eta Ubiden egongo dira informazino puntu eta berbaldiak. Zeanurin, zezeilaren 13an eta 14an egon ziran eta Igorre, Arantzazu eta Artean, martian izango dira.

Informazinoa jasoteko egunak eta orduak

Bedian, hilaren 15 eta 16an egongo dira plazan informazino puntuak 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, eta berbaldiak 19:00etan liburutegian.

Dimaren txandea izango da gero, zezeilaren 17an, 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, frontoi txikian egongo da informazino puntu eta berbaldia 19:00etan udaletxean. Zezeilaren 20an, ordutegi berean eta leku berean izango dira informazino puntu eta berbaldia eta 25ean, goizez, 10:30etik 13:30era, egongo da informazino puntu frontoi txikian.

Lemoan, hilaren 18an, informazino puntu egongo da 10:30etik 13:30era, Estankoaren ondoan. Zezeilaren 27an, eta 28an, barriz, puntu informatiboak arrastiz, 16:00etatik 19:00etara egongo dira. Berbaldiei jagokienean,

19:00etan izango dira, zezeilaren 27an, Kotxepin Kultur Etxean, eta 28an udaletxean.

Areatzan zezeilaren, 21 eta 22an plazan izango dira informazino puntuok 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara. Berbaldiak udaletxean izango dira 19:00etan.

Hile honetako hitzorduak amaitutako, Ubiden zezeilaren 23 eta 24an, 16:00etatik 19:00etara egongo dira plazan, informazinoa emoten. Berbaldiak, 19:00etan izango dira udaletxean.

Nik be bai 2023, Argazki eta Bideo Lehiaketeta

Bagilearen 18ra arte, parte hartu daiteke hondakinen prebenzino eta birziklapenari buruzko argazki eta bideo lehiaketan. Modalidade bakotzeko irabazleak 100 euro izango ditu saritzat.

Parte hartzeako beharrezkoa izango da Arratiako Udalen Mankomunitateko profila jarraitutea; Facebooken, ArratiaBidean-Gagoz da eta Instagramen, Arratia Garbia. Testua edo argazki-oina idazteko espazioan, #nikbebai2023 traola idatzi behar da. Argazki edo bideoan beharrezkoa izango da kontua izentatzea edo etiketatzea @ArratiaBideanGagoz Facebooken eta @Arratiagarbia Instagramen.

ARRATIA

InnovArratia programea sendotu eta zabaldu gura dau Errota Fundazioak

InnovArratia proiektua BFAko Bizkaia Orekan Sakonduz programearen pean dagoan proiektua da; eta Bizkaia Orekan Sakonduz programea, Bizkaia Lehiakorra egitasmoaren azpian dagoan programa bat.

Erredakzinoa

Helburutzat, eskualdeen arteko barrikuntza baliabideak orekatzea dauka. Bizkaia Orekan Sakonduz-en, Errota Fundazioa moduko eragileek proposatzen dabez proiektuak. Errotak, Zulaibar Campusaren baliabideak enpresen eskura ipinteko InnovArratia proiektua ipini eban martxan igaz eta espero baino arrakasta handiagoa izan dau. Aurten, proiektua sendotzea eta beste enpresa batzuetara zabaldutea espero dabe.

InnovArratia programearen bitartez, enpresaren beharizan zehatz bateri erantzuten deusie Zulaibarko irakasle eta ikasleek eta puntako teknologia daukan Zulaibar Campuseko baliabideak euren eskuetan ipini, beharizan hori beteteko.

Igaz, Errota Fundazioak, galdetegi bat bialdu eutsen sei enpresari euren beharizan zehatzak antzemateko. Bostek erantzun eben galdetegia, eta orduan Zulaibarreko irakasleek balorau eben beharizan horreetatik zeintzuk lagundu ahal ebezan. Hiru enpresetako hainbat proiektu izan ziran. "Guk BFAra proiektua aurkezten dogunean helburu batzuk markau behar doguz. Helburuak gauditu genduzan: bost enpresari bialtzea inkestea zan

helburua, eta seiri bialdu geuntsen; enpresa bi diagnostiketako helburua geunkan, eta bost enpresa diagnostikau genduzan, eta enpresa bat lagundutea espero genduan eta hiru lagundu doguz" azaldu deutso BEGITUri Iratxe Goikoetxea Errota Fundazioko koordinatzaileak.

Bentajak danontzat

Proiektuak bentajak danontzat dakarzala dino Goikoetxeak, win-win estrategia dala. "Enpresa eta LH arteko harremana sendotu egingen da. Proiektu horren barruan ez bakarrik LHko irakasleek, ikasleek be hartzean dabe parte askotan. Ikasleari erronka bat aurkezten jako eta berak, bere kabuz, pentsau behar dau erronka hori zelan bete enpresei erantzuteko". Holan, mota desbardinatetako arazoei emoten



deutsee erantzuna.

InnovArratia 2022ren bitartez, kolaborazino proiektuak sortuten dira enpresea eta Zulaibarren artean. Horren adibide bat, prototipoen eta lanabesen fabrikazinoa da. Enpresek diseinuaren flexibilitadea eta epeak eskatzen ditue eta "Zulaibarren arlo honetan garatu dira, eskolako giza baliabideak eta baliabide materialak".

Zulaibarko Robotika ikasleek, enpresa bateri, robot bat fabrikazino prozesuan sartuteko proposamena egin deusie eta proiektua garatuten dabil momentu honetan. "Biltegian kutxatilik hartu eta beharreen dagoan persona bateri eroateko robota, Robotika tailerrean diseinatu eta egin dabe. Robotika tailerrean robota programau eta frogak egin ostein, enpresan frogak erreal bat egiteko fasean dagoz oin" dino Errotakoak.

InnovArratia 2023 prestatzen

2023ko programea aurkeztu behar dau oin Errotak BFA. Enpresa barriak sartzeako asmoa dago. "Proiektua modu bat da Zulaibarren baliabideak enpresei erakusteko eta eurek ezetuteko zer dagoan hemen. Ze oin arte, talentua sortzea besterik ez da izan, langileak, baina oin badaukagu beste ikuspegi bat enpresei lagunduteko".

ARRATIA

Hilaren 16ra arte eroan daiteke janaria Institutura lurrikarak kaltetuentzako

Erredakzinoa

Zezeilaren 6ko gauean 7,8ko lurrikarea gertatu zan Turkia, Kurdistan eta Sirian. Zaporeak alkar-teak janaria bialduko dau hara kaltetuei lagunduteko, eta Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak-ek bilketea antolatu dau. Batez be, arrain eta lekale konserbak, arroza, pastea eta esnea eskatu dabe. Zeanurin eta Igorren, hilaren 11n jaso ebezan jatekook, baina Igorreko Arratia Institutuan 16ra arte eroan daitekez eskutakotako produktuak. Diman zezeilaren 15era arte eroan ahal da janaria udaletxera, eskolara zein

Zuazo janari-dendara, eta 15ean 17:00etatik 19:00etara be eroan ahal izango dira jakiok frontoi txikira.

Lurrikareak, Siria eta Turkia arteko mugea kolpatu eban, Kurdistan inguruko lurrak kaltetuz. Biztanleria askoko gunea da hau eta gehienak etxean lo egozan ezbeharra gertatu zanean. Etxe asko jausi ziran eta azpian gertatu ziran milaka lagun. Gitxienez 40.000 hildako zenbatu ditue eta gehiago izango dira, jentea bizirik ateratea gero eta gaxtagoa dala. Zaurituak barriz, ia 80.000 dira eta hortik gora etxea galdu dabenak.



MARI CRUZ GURUZETA

Mari Cruz Guruzeta, Errepublika sasoiko Areatzako emagin abertzalea

Areatzak memorian gordeten dau Mari Cruz Guruzeta (1871-1934) emagina eta Areatzako Emakume Abertzale Batzako sortzailea, plaza baten izenari esker. Memoria kolektiboan egon arren, Historian ez dira emaginak agertzen. Guruzetak politikan be parte hartu eban arren, mitinak emoten eta Areatzako EAB sortuz, bere emagin lana da Areatzakoek gehien gogoratzen dabena.

Erredakzinoa

Horren erakusgarri da Areatzako Mari Cruz de Guruzeta plazan, bere emagin lanari omenezko Jesus Lizasoren Areatzako Sabelak izeneko eskulturea egotea.

Aramaion jaio zan arren, urte asko bizi izan zan Guruzeta Areatzan, hil arte. Otxandiora ezkondu zan eta handik Areatzara bizitera joan ziran andra-gizonak, gizona Areatzan aguazil hasi zanean. Euren bost seme-alabak, Lucia, Piedad, Víctor, Iñaki eta Arantza, Areatzan jaio ziran. "Gure amama emagin ibili zan, Bilboko mediku ezagun baten zerbitzura eta erdi-tzeetan arazorik egon ezker, hare-ri deitzean eutsan" azaldu deutso BEGITURI Juan Mari Arregi Mari Cruz Guruzetaren lobak. Juan Mari, Arantzazu, Mari Cruz Guruzetaren alaba gazteenaren semea da. Ez eban amama ezetu, baina etxean, amamaren bizitzaren hainbat pa-sarte kontetan ebazan amak.

Andra konprometidua zan Mari Cruz. "Abertzalea zan, EAJ-PNVkoa. Politikan parte har-tzean eban eta 1932an Areatzan Emakume Abertzale Batza sortu eban. Mitinetan be hartzean eban parte mometu berezietan" dino Arregik. Mari Cruzek loba bat-zuk eukazan Begoñan, EAJkoak, Bizkaitik mitinak emoten ibiltan ziranak, baita Arratian be eta euren-tako bategaz, Zeanurin, mitin bat emon eban Mari Cruzek.

Sasoi haretan, Errepublika sasoiaren, Guardia Zibila- ren des-takamentu handi bat egoan Areatzan, oin udaletxea dan erai-kinean, eta orduko udaletxearen ondoan egoana. Mari Cruzen gi-zona aguazila zanez, udaletxean bizi ziran andra-gizonak umeakaz. "Guardia Zibilak ez ebazan ondo ikusten amamaren planteamentu nazionalistak, eta behin, plazea

inarreagaz garbitutera zigortu eben" etxean hainbatetan ent-zundakoa kontetan dau Arregik.

Emagina

Emagin lana zala-ta, herriko jen-teak estimu handian eukan Mari Cruz eta lanbide honek Guardia Zibila- ren errespetua be ekarriko eutsan geroago. "Behin, inguruko auzoetatik andrei umeak egiten lagunduten egoala, jakin eban kapitainaren andrea erditu ezinik egoala. Atoan, kuartelera joan zan, andrea zelan egoan ikusteko eta lagunduteko asmoagaz. Kapi-tainaren haridurarako, atendidu eban andrea amamak. Orduan, kapitainak parkamena eskatu eutsan ezarritako zigorragaitik eta esan eutsan ez ebalako espero zigor haren ostean, bere andrea atendiduko ebanik". Hau 1932an gertatu zala dino Arregik. 1934an hil zan Mari Cruz.

Areatzak ez dau ahaztu eta 2007an, Mari Cruz de Guruzeta plazan bere lanbidearen ome-nezko Jesus Lizasoren *Areatzako sabelak* eskulturea ipini eban Udalak.

Ondorengoak

Esandako moduan Mari Cruz Gu-ruzetak eta Jose Maria Azpeitiak bost seme-alaba euki ebezan. Iñaki gazte hil zan eta ez dago haren datu askorik.

Piedad Portugaleten bizi izan zan eta bertan hil. Juan Cruz Ortiz de Urbinagaz ezkondu zan eta bost seme-alaba izan ebazan. Portugaleten txalet bat eukan Gandarias familia aberatsarentzat egin eban lan, giltzazain lanetan.

Luciak beste familia aberats batentzat egin eban behar Bilbon, sukaldari. Bilbora ezkondu zan Lorenzo Basarasegaz eta alaba bi izan ebazan, oindino bizi diranak. Víctor be Bilbonbizi izan zan,

Olabeagan. Euskaldunan egin eban behar. Hasikeran, Arratiako tranbian joaten zan beharrera eta gero Ola-beagan jarri zan biziten. Hiru alaba izan ebazan. Beti Alai txistulari tal-dean jotan eban eta hainbat jira egin ebazan Ameriketarik.

Gazteena, Arantzazu, Lemoako Daniel Arregigaz ezkondu zan eta sei seme-alaba izan ebazan: Gurutzi, oin dala urte bi hil zana, Jose Mari, Juan Mari, Angel, Jesus Mari eta Luis Mari. Arantzazu Lemoara ezkondu zan eta bertan jaio zan Gurutzi, 1936an, baina gerra hasi zanean Enkarerrietara aldatu ziran. Han-dik Portugaletara eta han jaio zan bigarren umea. Hirugarrena, Jose Mari, Deustun jaio zan 1941ean. "Gurasoak Deustura joan ziran beharrean. Aitak, tigreaken eraikina eritxan horretan egiten eban behar, baina gero enpresea Durangora aldatu zan eta beste neba-arrebak Durangon jaio ziran". Familia etxea Durangon daukie Arregitarak.

Gurutzi Arregi etnografoa

Mari Cruzen memoria gordeteko dokumentu bila ibiltan zala bere arreba Gurutzi dino Juan Mari. "Betí esan deuskue Errepublika sasoiko foileto bat dagoala gure amamari buruzkoa. Arreba Gu-rutzi urte askoan ibili zan bila, ez dakit topau ete eban. Gaixotu eta lau hilabetera hil zan, ELAk jota, pandemiaren erdian" gogoratu dau Juan Mari.

Durango Udalak adopzino alaba (Lemoan jaioa zan) izen-tau eban Gurutzi Arregi euskal kultura eta andren aukera bar-dintasunaren alde egindako ibilbideagaitik. Etnografoa zan, Labayruko sortzaileetako bat, eta Euskal Herriko Atlas Etnografikoa koordinatu eban. Etniker-en be egin eban behar, Euskal Herriko material etnografikoaren bilketa sistematikoa eginez.



Juan Mari Arregi

Juan Mari Arregi Azpeitia (1941), Deustun jaio zan. Txikitan Durangon bizi izan zan familiagaz. 1953an sartu zan Derioko Seminarioan eta 1966an abade egin zan. Abade langileen mobimentuan parte hartu eban.


1968an, beste abade bat-zukaz batera, Bilboko Go-tzaindegiko lan bitan parte hartu eban. Lanotan, eleiza- ren hierarkiak frankismoagaz eukan konplizidadea sala- tzen saiatzen ziran egileak, eta Euskal Herriaren zerbi- tzura egongo zan Eleiza barri bat eskatzen eben.

1969an, erbesteratu egin behar izan zan, "ETAren terro- rismoagaz kolaboretea" lepo- ratzen eutsan errequisitoria mili- tar bat jaso ebalako, ETAko kide baten arreba medikuan parte hartu eta iges egiten lagundu- teagaitik. Erbestean, Donibane Lohitzunen, euskal errefujiadu politikoei laguntzea emoteko

Anai Artea-ren sortzaileetako bat izan zan. Erbestetik buel- tan, 1972an, Basauriko kartzela- lan egon zan eta gero Eubako Pasionisten etxean, 1973an kausa artxibatu zan arte. Gero, eleizea itxi eban.

1976 eta 1977an, Egin egunkariaren sorreran parte hartu eban eta bertan egin eban lan Daniel Udalaiz ezi- zenagaz sinatuta. Txalaparta- ren *Zamorako apaiz-kartzela* liburuaren ediznion be par- te hartu eban, baita Maluta Films-en *Apaiz-kartzela* fil- maren gidoian.

Argia aldizkarirako kolabo- razinoak be egin ditu oin dala gitxi arte.



ARATUSTEAK

Mozorroak eta disfrazak izango dira protagonista Aratusteetan

Zezeil bete-betean izango dira aurten Aratusteak. Eremuko herri gehienetan bariku-zapatuan, hilak 17 eta 18, ospatuko ditue neguko jai honeek, zaku edo erropa zaharrez egindako mozorro tradizionalakaz edo modernidadeak zabaldutako disfrazakaz, baina danetan, umorez eta jai giroan.

Erredakzioa

Herri gehienetan, barikuan edo zapatuan egingo baditue be desfile eta jaiak, Igorren, egun biko jai egitaraua prestatu dabe. Bedian, martitzen karnabal egunean egiten dabe ospakizuna; aurten zezeilaren 21ean hain zuzen be.

Urte askoan erdi ahaztuta egon bada be, mozorro tradizionala zabalduz doa. "Jantzi kokomarroa", jantzi mozorroaren parekoa, dinoe Artean. Izan be, Kokomarroak taldeko antolatzaileek jentea animau gura dabe, mozorrotuta edo kokomarro jantzita, ospatutera Aratusteak. Izan be, taldea bera sortu zan disfraz eta mozorroa gauza bera ez dirala ideatik. Arteakoak zezeilaren 17an, 19:00etan batuko dira. "Kalez kale ibiliko gara, jentea zirikatzen. Musikariak be egongo dira eta jantzaren bat edo beste egingo dogu plazan. Bertsolariak be etorriko dira, seguru asko, eta amaitzeko Kuberue erreko dogu" azaldu deutso BEGITURI Ixone Aromak Kokomarroak taldekoak.

Astelehenean hilak 20, 18:00etan, Ostomila Txotxongilo Taldearen *Alaia Galtzagorria* mitoen bidaia egongo da Arteako Kultur Etxean.

Igorren be, mozorroaren alde egin dabe "mozorroa jantzi, disfraz etxean itxi" dinoe Inauterietako egitarauaren antolatzaileek eta aurreko astean, ludotekan egongo da aukerea mozorroak egiteko. Egun biko egitaraua prestatu dabe alkarlanean Udalak, Arratiko Zekorrak Rugby Taldeak, Inazio Zubizarreta Guraso Elkartek, Arantzarte jantza taldeak, Bizi Igorren 2030, Zaztaparrak aisialdi taldeak eta Berbalagunek. Barikuan, hilak 17, hasiko da jai eskolatik urtengo dan kalejira bategaz. Gero, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko plazan, Mugi zaitetz disko festa, txokolatea eta euskal jantza tailerra egongo dira. 20:00etatik aurrera, Berbalagun taldeko albokariak ibiliko dira herrian zehar musikea jotzen. Hurrengo eguna be, zapatua, kalejira bategaz hasiko da, 12:30ean, Garben. 15:00etan, herri bazkaria egongo da eskolako aterpean. Antolatzaileek animau gura dabe jentea bazkariko postreko, tostadak egin eta eroate-



ra, konpartiduteko. Bazkarirako txartelak erosteko atzen eguna hilaren 15a da eta Hegazkiñan eta Gau Loran erosi daitezke txartelok. Bazkalostean, erromeria egongo da Fan&Go taldeagaz eta bitartean sari banaketea egingo da.

Lemoan, Ostera be bueltan erabili izenpean, berrerabilpenaren aldeko kanpaina abiatu dau Aisialdi Batzordeak eta Aratustee-tan mozorroak etxeko erropakaz egitera animau gura dauz herri-tarrak. Udalak, umeentzako jaiak prestatu dau zapaturako, hilak 18, 17:00etatik 20:00etara. Han, ohe elastikoak, txokolatea, disko festa, jolasak eta *photocall*-a egongo dira txikerrenen gozamen-erako. Umeentzako jaiak gainera,



20:00etan, Orkresta Elektrotuna Elektroxarangeagaz poteoa egongo da, Bikandi tabernatik urtenda.

Dimak, aurtengo Aratusteak, hilaren 17an ospatuko dauz eta animaliak hartuko dau gaitzat desfilerako. Frontoi txikian hasita, ume eta gazteak Altxorraren bila ibiliko dira herritik: 4 eta 12 urte bitartekoak 17:00etatik 18:30era, eta 13 eta 17 urte bitartekoak, 20:00etatik 21:00etara. 18:30ean txokolate beroa bananduko da frontoi txikian eta Orkresta Elektrotunak animauko dau giroa, 18:30etik 20:15era frontoi txikian, eta 20:15etik 21:30era, tabernetatik poteoan.

Arantzazun, 18:00etan batuko dira herri-tarrak plazan, kalejirea

egiteko eta 19:00etan, Ogi Tos-tada Lehiaketea egingo dabe Herriko Tabernan.

Ubiden, zapatuan ospatuko ditue Aratusteak desfile bategaz 17:30ean eta ostean sari banaketea egongo da. Pasarelea herri-tarren artean prestatzen hasita dagoz daborduko eta zezeila-ren 17an amaituko dabe.

Zeberion Aratuste jaietako gaia Lantzeko Ihauteria izango da. 18:00etan, txokolatea eta 19:00etan, Lantzeko zortzikoa, jantza-plaza eta musikea egongo dira barikuan, hilak 17.

Martitzen karnabal ospatuko dabe Bedian

Zezeilaren 21ean da aurten martitzen karnabal eta egun horretan ospatuko ditue Aratusteak Bedian. Arrastiko 17:30ean, frontoian *photocall*-a egongo da eta han emongo dabe izena desfilean parte hartu gura dabenek. Ondoren, 18:00etan hasita, desfilea egingo dabe herrian. Txaloka Antzerki konpainiaren *Diskopuntx* jaialdiak animauko dau giroa frontoian gero, zuzeneko *show* zoro bategaz. Amaitzeko txokolatea bananduko da.

Bezperan, ludotekan, 17:15etik 19:15era, jairako apaingarriak egingo ditue umeek eta euren familiarek. Izan be, egun horretan ludotekeak ateak zabalik izango ditu, gura dauanak parte hartu dagian.

EDURRA ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERION

Klima aldaketearen inguruko datuak kalera aterako ditu Meteo kalean proiektuak

Oin dala urte bi ipini eban martxan Arantzazuko Mikel Ugarrizak Meteo Arratia, Arratiako herrietan eguraldiaren barri emoteko Facebook-en eta aurten Instagramera emon dau saltua. 2022an sano datu onak lortu ebazan eta momentu honetan 3.400 jarraitzaile inguru ditu. Urtailaren 18an, edurra egin ebanean, saio berezia egin eban Ugarrizak eta bere jarraitzaileetako askok bideoak eta argazkiak bialdu eutsiezan. Aikomen, euretako batzuk eta BEGITUK sare sozialetan egindako eskaerea dala-ta lortutako beste batzuk.

Erredakzinoa

Aldaketa klimatikoagaz arduratu-ta, urtailean beste proiektu bat pentsau eban Ugarrizak. "2022a urte txarra izan da: sikatea egon da, bero boladak euki doguz, euri askorik ez dau egin, itsaso maila igoten dago, izotza urtzen, deforestazinoa..." dino Arantzazukoak. Hortik 12 gai hartu eta Bilbo, Arratia eta Otxandioko kaleetan gaion inguruko kartelak ipinten dabil.

Kartel horreetan informazinoa emoteaz gainera, QR kode bat dago galdetegi batera eroaten dauana. Erantzunak aztertu eta bagila aldera emaitzak kaleratute-ko asmoa dauka.

Sare sozialetatik kalera
Sortu zanean sare sozialetarako

proiektua bazan be, kalera saltu egitea gura eban proiektuaren bultzatzaileak. Hortik sortu zan Meteo kalean. "Tabernetan eta jentea batzean dan lekuetan" ipi-ni ditu kartelak. Kartelek, titulua, azpititulua, gaia laburbilduten esaldi bat eta horren gaineko informazinoa munduan edo Espainian daukaz. Fokoa, "lehenengo handitu, eta gero txikitu egiten dot. Normalean egiten dot berba EAEren gainean, ze Arratia mailako datuak ez dira argitaratzen. Normalean EAEko datuak topau daitezke". Informazino hori grafikoren bat, Europako mapea, munduko mapea... edo ikusizko elementu bat agertzen da gero. Kartel bakotxean QR kode bat dago formulario bate-gaz. Formulario horretan jentek

bost galdera topauko dauz: bat nondik idazten daben jakiteko, beste bat adina, eta beste hirurak karteleko gaiaren inguruko galderak dira. Gaiak, 2022ko uda; Deforestazinoa; Karbono dioxidoaren isurteak; Plastikoa; 2022 urtea 1961etik seigarren urterik lehorrena izan dala; Energiaren prezioaren errekorra; Berotegi efektuko gas isurteak; Lurpeko ur erreserbak egoera txarrean dagozala; Maila altuko depresino isolatuak, Uriolak, Itsas mailaren igoerea eta Baso suteak dira.

Kartelez gainera, jentegaz batera egindako zuzeneko bideoak eta metereologia bitxikeriak izango dira Meteo kalean-en. Facebook eta Instagram-en jarraitu arren, gauzak kalean egitea dala helburua dino Ugarrizagak.



Dima. Argazkia: Sofia Agirrezabala.



Dima. Argazkia: Itziar Gonzalez.



Zeanuri. Argazkia: Laiene Rekalde.



Igorre, San Kristobal. Argazkia: Zedarri Jauregi.



Ubide. Argazkia: Irati Urien.



Igorre.



Zeberio, Upoko pagadia. Argazkia: Alazne Azkunaga.



Arantzazu. Argazkia: Mikel Ugarriza.



Zeanuri, Altzusta. Argazkia: Edurne Landajo.



Dima, makaztui. Argazkia: Haizea Ziarrusta.



Gorbeiako kurutzea. Argazkia: Nerea Etxebarria.



Artea, Basoa defendatzaileen etxea.



Areatza.



Arantzazu. Argazkia: Pello Artabe.



Igorre, San Kristobal. Argazkia: Maite Arrizabalaga.



Zeanuri, Landagutxi. Argazkia: Ainhoa Juarez.



Bedia, Barroeta auzoa. Argazkia: Idoia Etxebarria.



Lemoa. Argazkia: Miriam Otxandategi.



Zeanuri. Argazkia: Karmele Beobide.



#nikbebai2023

HONDAKINEI BURUZKO ARGAZKI ETA BIDEO LABURREN LEHIAKETA

GAIA: HONDAKINEN PREBENTZIO ETA BIRZIKLAPENARI BURUZKO ARGAZKIAK EDO BIDEO LABURRAK (gehienez 30 segundukoak)

EPEA: otsailaren 13tik ekainaren 18ra

SARIAK: 100 € modalitate bakoitzeko

1

TESTUA EDO ARGAZKI-OINA IDAZTEKO ESPAZIOAN HONAKO TRAOLA/ETIKETA IDATZI BEHARKO DA:
#arratiagarbia #nikbebai2023

2

BEHARREZKOA IZANGO DA ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEKO PROFILA JARRAITZEA:
Facebook: ArratiaBideanGagoz
Instagram: Arratiagarbia

3

BEHARREZKOA IZANGO IZANGO DA ARGAZKI EDO BIDEOAN KONTUA IZENDATZEA EDO ETIKETATZEA:
@ArratiaBideanGagoz (Facebook)
@Arratiagarbia (Instagram)

**ARRATIAKO UDALEN MANKOMUNITATEA**

**Bizkaia**
foruzabundia
desarrollo
desarrollo

**#nikbebai2023**

LEHIAKETAREN OINARRIAK


FUTBOLA

Gorbeiako Gurutzea Athletic Club Peña Valladolidera joango da

Martiaren 18-19ko astegoienean, Valladolid eta Athletic-en arteko partidua jokatu da eta Areatzako peñak bertaratutako deialdia egin dau. Hilaren 28ra arte emon daiteke izena.

Erredakzioa

Martiaren 18-19ko astegoienean jokatu da Valladoliden, Athletic Club eta Valladoliden arteko ligako partidua. 2020ko martian izan zan be Areatzako peñak bertara egindako urtekerea eta ha izan zan peñak egin dauan atzena. Urtero batzean dira athleticzale ugari bertan eta aurten, Areatzako Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñako kideak eta eurekaz izena emoten dabenak be egongo dira talde bizkaitarra animetan. Pan-

demia ezkerotzik egingo dan lehenengo urtekera da hau, Vigora joatea eukien aurreikusita baina ez eutsazan sarrera nahikoa bialdu Celtak Athleticeri. Izena 691 529 748 telefonoan edo The Quiet Cornerren emon behar da zezeilaren 28a baino lehen. Urtekerea, partidua astegoienean bada bakarrik egingo da; izan be, partidu batzuk astelehenean jokatuten dira eta ordutegia ez dago oindino zehaztuta. Prezioak, bidaia, ostatua eta sarrerea barne hartuko dauz, baina oindino zehazteko dago.

Valladolidera urtekerea
Martiak 18-19 marzo



Bidaia + ostatua + sarrera
Viaje + hotel + entrada

08:00etan, urtekerea Areatzatik (martiak 18)
Salida desde Areatza (18 de marzo)

Izena 691 529 748 (Iker Zamakona) zenbakian edo
The Quiet Corner tabernan emon zezeilaren 28ra arte
Inscripción en el teléfono arriba indicado o en
el The Quiet Corner hasta el 28 de febrero

*Partidua astelehenean jokatzen bada
bidaia bertan behera geldituko da

MENDIA

Manaslutik San Mamesera

Munduko zortzigarren mendirik altuena lehenengoz neguan eta oxigeno artifizial barik igon ostean, omenaldia egin deusie 43.000 futbolzalek Alex Txikon mendizale lemoztarrari.

Erredakzioa

Urtilaren 6an lortu eban Alex Txikon alpinistek itsaso mailatik 8.163 metrora dagoan Manasluko tontorra neguan eta oxigeno gehigarri barik zapalduten lehena izatea eta hilabete beranduago, San Mameseko zaleen omenaldia jaso eban. Athletic Club eta Cadiz taldeen artean hilaren 3an jokatu zan partiduan atera eban ohorezko sakea lemoztarrak. Athletic-en kamiseta vintagea jantzita eta hamarra atzean jarrita urten zan Txikon Iker Muniain kapitainaren laguntzeagaz. Ezbai barik, baloiari Cadizen aterantza emon eutsan ostikadea eta ia-ia sartutea lortu be. Holan, San Mamesen batutako ia 43.000 zaleen txaloak jaso ebazan errekorreko



Alex Txikon San Mamesen.

alpinistek. Urtekeran adierazo ebanez, ekitaldi "hunkigarria" izan zan: "Polit-polita, publikoaren berotasuna sentidu dot".

MENDIA

Kirol erronkak planteauko ditu Bediako Udalak kirola sustatzeko

Erredakzioa

Martiaren 3tik maiatzaren 26ra, hiru mendi, Erosomendi, Belatxikieta eta Mandoia, igotea da Udalak proposatzen dauan lehenengo erronka. Parte hartzeako liburutegian emon behar da izena, zezeilaren 24a baino lehen. Izena emoterakoan, banderola bat jasoko dabe partaideek, mendi tontorretan banderola horregaz argazkiak aterateko. Argazkiok liburutegi@bedia.biz helbidera edo whatsapp bidez 636 325 578 telefonora bialdu behar dira. Jaso-

tako argazkiak liburutegian ipiniko dira ikusgai eta erronkea lortzean dabenek sari bat jasoko dabe. Kirol Erronkak programea, kirola beste ikuspegi batetik sustatzeko sortu dau Bediako Udalak. Umeez, gazteek eta helduek hartu daikie parte, eta familia plana izatea be izan da sustatzai-leen idea. Horregaitik, lehenengo erronka honetarako, udalerritik hur eta zailtasun handirik ez daukien mendiak aukeratu dira, "mundu guztiarentzat irisgarriak diranak kirolari edo kirolzale izan barik. Holan, parte-hartzea erraztu

eta inguruko mendiak gehiago ezetutea lortzean dogu. Erronka egiteko epea be errazoizkoa iruditzen jaku: hiru hilabetean hiru mendi" azaldu deusie BEGITURI Udaletik. Erantzuna ona bada, hainbat kirolean, urteko erronka bat botateko asmoa dago.



ARATUSTEAK ARTEAN

Zezeilak 17, barikua
19:00etan, Kokomarroen
Aratuste kalejireia eta ostean
Kuberue erreko da.

Zezeilak 20, astelehena
18:00etan, Ostomila Txotxongilo
Taldearen Alaia Galtzagorria
mitoen bidaia Kultur Etxean.



ERRUGBIA

Bigarren taldearen kontrako garaipena San Txismen

Erredakzinoa

Zezeilaren 4an partidu garrantzitsua irabazi eban Ekin Eraikuntzak Arratiko Zekorrek taldeak Igorren, sailkapenean bigarren diran Zaisa Txingudi talde irundarraren kontra, 29-13.

Ligako lehen itzuli eskasa egin ostean, arratiarrek jarraian irabazten daben laugarren partidua izan zan hilaren 4koa eta aurrera doaz sailkapenean.

Ekaitz Duñabeitia entrenatzailerak azaldu dauanez, "partidu oso serioa" jokatu eben: "Era-soan oso ondo eta defentsan oso oso gogor; pozik gagoz laugarren garaipena dalako, gogotsu". Izan be, hasikeratik ipini eben arratia-

rrak partiduen erritmoa. Lehen zatian nahiko bardinduta ibili baziran be, bigarrenen etxeok izan ziran jokoaren jaube.

Hirugarren postua eskura

Zortzi talde dira Euskal Ligako Ohorezko B Mailan eta Arratiko Zekorrek oin dala lau jardunaldi zazpigarren izatetik, laugarren postura heltzeako balio izan deuto atzen partidua. Oin 26 puntu ditue eta hirugarren taldea, Gaztedi, puntu bakarrera. Hurrengo partiduen zain be badagozala esan dau Duñabeitiak, izan be, lehenengoen kontra jokatu dabe hurrengo jardunaldian. Zezeilaren 25ean izango da Iruña taldearen kontrako partidua, etxetik kanpo.



FUTBOLA

Gizonezkoen Arratia A lidertzan dago sei puntuko aldeagaz

Erredakzinoa

Gizonezkoen Arratia Ak Iturrigorri bigarren sailkatuaren kontra jokatu eban zezeileko bigarren astegoienean etxean eta 1-0 irabazi eban, B taldeak ostera 1-2 galdu eban etxean La Merced A taldeagaz. Lemoako Harrobik 3-1 irabazi eban Arlonagusian Montefuerte Aren kontra. Andrazkoen A taldeak 2-1 galdu eban etxetik kanpo San Ignacioren kontra eta B taldeak husna bardindu eban etxean Berrio-Otxoa Aren kontra.

Gizonezkoen Arratia A taldeak 20 jardunaldiren ostean lidertzan jarraitzen dau eta 44 puntu ditu, bigarrena dan Otxarkoagari 6 puntu ateraten deusaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Gordexola taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 16:00etan.

Andrazkoen Arratia A 19 jardunaldiren ostean hamaikagarren postuan dago 19 puntugaz. Da-

torren partidua Urbietan jokatu dau Santandergo Monte taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 15:30ean.

Gizonezkoen Arratia B hainbat partidu galdu barik egon da baina atzen partidu biak galdu ditu. 20 jardunaldiren ostean bederatzigarren postuan dago 26 puntugaz. Datorren partidua hilaren 18an jokatu dau etxetik kanpo Montefuerte A taldearen kontra, arrastiko 17:00etan.

Andrazkoen B taldea 18 jardunaldiren ostean seigarren postuan dago 27 puntugaz. Datorren partidua etxetik kanpo jokatu dau Bilbao Artizarrak taldearen kontra hilaren 18an, arrastiko 16:00etan.

Lemoako Harrobi 20 jardunaldiren ostean zazpigarren postuan dago 34 puntugaz. Datorren partidua hilaren 18an jokatu dau etxetik kanpo Ibarsusi taldearen kontra, goizeko 11:15ean.

PELOTEA

Oier Etxebarria Promozino Mailako Binakako Txapelketako ligaxkako lider

Oier Etxebarria pelotari igorreztarra eta Iker

Salaberria Goizuetakoa, ligaxkako sailkapeneko

lehenengo postuan dagoz; partidu guztiak, bat izan ezik, irabazita.

Erredakzinoa

Hurrengo partidua, zezeilaren 18an jokatu dabe Lemoan, bigarren postuan dagozan Larrazabal eta Ezkirozen kontra, baina partidu horretan ez daukie ezer jokoan, daborduko finalerdietarako sailkatuta dagoz eta. Ligaxkako atzen partidua, hilaren 25ean izango da, Zubizarreta III eta Elizegiren kontra.

Oin arteko atzenengo partidua jokatu barik irabazi eben Etxebarriak eta Salaberriak; izan be, Markina-Xemeinen jokatzekoa zan partidua zezeilaren 11n, baina euren aurkariak, Agirre eta Iztueta lesionauta egozan eta irabazita legez kontabilizau da.

Denporaldi ezin hobe dabil egiten Etxebarria-Salaberria bikotea, nahiz eta igorreztarrak eskuetan arazoak euki. "Emitzen aldetik oso txapelketa ona gabiz egiten. Iker (Salaberria) oso momentu onean dago eta ni partidu batzuetan

ondo eta beste batzuetan txarto, arazoak euki dodaz eskuakaz-eta. Oin be eskoieko eskuagaz apur bat sufriduten nago" azaldu deuto begituri Oier Etxebarriak.

Baina oin helburua txapelketa ondo amaitutea dala dino, finalerdietako ligaxkan egongo dira eta irabazteko ahal daben guztia

egin dabe, "baina txapelketa irabaztea oso gaxa da. Atzenean jentea goraka doa eta oso bikote indartsuak dagoz aurtan".

Hurrengo partidua

Lemoan jokatu dabe hurrengo partidua Etxebarriak eta Salaberriak, Larrazabal eta Ezkirozen kontra. "Bikote oso gogorra da, gainera Lehenengo Mailan ordeko egon dira eta hori zeozergaitik da. Larrazabal aurrelari indartsua da eta atzean Ezkiroz, esku bi on daukazan pelotaria. Ea guk partidu on bat egiterik daukagun, ze partidu horreek irabazteak konfiantzea emongo deusku aurrera begira".



PELOTEA

Amaia Aldai txapeldunorde izan da V. Bizkaia Txapelketan



Nora Mendizabal, Amaia Aldai, Uxue Osés eta Olatz Arrizabalaga.

Erredakzinoa

Amaia Aldaik eta Nora Mendizabalek osotutako bikoteak galdu bako txapelketa egin dauan arren, Bizkaia Frontoian jokutako

finalean 22-21 gailendu ziran Olatz Arrizabalaga eta Uxue Osés. Holan, Arrizabalagak laugarren edizinoko txapela mantenu dau, Aldaiagaz batera irabazitakoa.

Pelotari dimoztarrak onartu

dau, "partidu nahiko eskasa" izan zala, galdutako tantu asko eta irabazitako gitxi egon ziralako. Lehen zatian, Aldaik azaldu dau aurrean asmatu ezinean egon zala eta hor egon zala "kakoa". Atzelari biak barriz, "sendo" egon ziral gehitu dau. Halanda be, atzenara arte saiatu ziran gorridunak: "Ez genduan amore emon eta hogeta batera bardindutera heldu ginan baina atzenengo tantua edonorentzat izan ahal zan".

MLK Binaka

Mendizabal be bidelagun daukala, Master Laboral Kutxako Binakako Txapelketa be hasi dau Aldaik. Leire Garai eta Enara Gaminde izan ebezan aurkari txapelketako lehen partiduan, 22-16 irabazi eben. Olatz Arrizabalaga eta Andrea Capellanen kontrakoa izango da bigarren jardunaldia, hilaren 26an.

TXOTXONGILOAK

Umeentzako txotxongilo ikuskizuna egongo da Arteako Kultur Etxean

Erredakzinoa

Zezeilaren 20an, 18:00etan, Ostimila Txotxongilo Taldeak *Alaia Galtzagorria* ikuskizuna eskainiko dau Arteako Kultur Etxean. Txotxongiloak, euskal mitologia eta zuzeneko euskal musikea batzean ditu *Alaia Galtzagorria* ikuskizunak. Ikuskizun honetan, Alaia Galtzagorriak, publikoaren laguntzeagaz, Euskal Herriko tradizio eta mitoen zehar bidai bat abiatuko dau Txerrentxu deabruak lapurtutako Zezengorrik zaintzean eban altxorraren bila. Zoa Tamarak eta Ruben Mejutok sortu eben 2015ean Ostimila Txotxongilo Taldea. Arte eszeniko proiektu honek, txotxongiloak, ahozkotasuna eta zuzeneko musikea batzean ditu. Garazi Navas da ikuskizuneko musika jotzailea.



LIBURUA

Ruben Ruizen *Beti muga* aztertuko dabe Arteako Irakurleen Txokokoek



Erredakzinoa

Zezeilaren 24an, 19:00etan, daukie hitzordua eta saio honetan, Xabier Mendigurenen gidaritza-pean, Ruben Ruiz Perezen *Beti muga* (Txalaparta, 2022) nobela historiko eta abenturazkoa izan-gode dabe berbagai. Hari narratibo bi daukaz eleberriak. Lehenengoa benetako gertakarietan oinarrituta dago. Izan be, II. Mundu Gerran, alemanek okupaturiko lurraldean

jausten ziran hegazkinlari alia-duak eta beste igeslari batzuk etsaien eskuetatik libretako eratu-zan Comète sarea, Belgikatik eta Frantziatik abiatuta, Euskal Herriko muga kurutzatu eta britainiarren babesean ixteko. Horreri beste hari bat gehitu deutso egileak: Mattin umezurtz geratu dan mutiko bat da, Baztanen bizi dan osabak etxean hartuko dauana. Osaba hori kontrabandotik bizi da, ordea, eta gaueko lanean sartuko dau ilobea be.

BAKARRIZKETEA

Atx antzerki konpainiak, *Balbea* heriotzearen gaineko bakarrizketea dakar Lemoara

Erredakzinoa

Zezeilaren 25ean, 19:00etan, Atx Teatroa antzerki konpainiak *Balbea* ikuskizuna eskainiko dau Kotxepin Kultur Etxean. Iñaki Ziarrusta aktore-agaz batera, hiru txotxongilo egongo dira agertokian. Ikuskizuna, helduentzako antzerki bakarrizketa bat da, tragikomedia bat. Euskaltzaindiaren hiztegian, balbe berbeak adiera bi daukaz. Bata, herioari emoten jakon izena da eta besteak zorte txarra esan gura dau. Istorioak kontetan ditu Gregorioren bizitzaren atzen egunak, delirio eta errealdadearen artean burrukan. Gregorio haserre dago, suminduta, badakialako hilko dala eta oindino baditualako gauza asko esan eta egin gura dituanak. Baina ez dau

gura jokaera horregaz hil. "Sekula ez dogu jakingo, dagoeneko hilda dagoan edo ez, edota agertzen diren bestelako pertsonaiak egitan existitzen diran edo ez". Txotxongiloek egiten ditue beste pertsonaiak: urte biko ume bat, zahar etxeko zaindaria eta Heriotzea bera.

Atx konpainia

Atx Teatroa Bilbon sortu zan 2010ean. Euskal antzerkia egiten dabe, euskeraz eta egungo gizarte-arentzat. "Edertasun eta perfektuen mundu honetan", ilunean dagoana kanporatu gura dabe. "Mundu distopikoak, arrarotasunak, minak, iluntasunak, zatarrak, zikina... argira atera ikusleek gugaz batera atx egin daien" dinoe euren aurkezpenean.



ABESBATZAK

Bizkaiko Abesbatzen Astean hartuko dabe parte Igorre eta Zeanuriko abesbatzek

Erredakzinoa

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatuta, Bizkaiko Abesbatzen XLIX Astea Begoñako Andra Mariaren basilikan ospatuko da zezeilaren 6tik 17ra. Egun horreetan, 20:00etan puntuan hasita, 50 abesbatzaren emonaldiak entzun ahal izango dira. Igorreko Luis Iruarizaga abesbatzak eta Zeanuriko abesbatzak be hartuko dabe parte, zezeilaren 17an eta 15ean, hurrengo hurrengo. Hilaren 15ean, Zeanuriko Abesbatzagaz batera, Basauriko Soinu Bidea Abesbatza, Derioko Ipar-Alde Abesbatza eta Getxoko Coral Ondarreta eta Irutasun Abesbatza egongo

dira Begoñan. Zezeilaren 17an barriz, Igorreko Luis Iruarizaga Abesbatzari, Sestaoko Orfeon de Sestaori, Mungiako Jose Ma-

IPUINAK

Bazen behin herritxo batean... umeentzako ipuin kontaketea Kotxepinen



Erredakzinoa

Zezeilaren 22an, 18:30ean, Maider Alcelay ipuin kontalariak, kontaketa saio bat eskainiko dau 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Kontalariak, nagusien berbetatik jasotako istorio eta ipuinak dakar kontaketa saioan, antxinako kontuak, hain zuzen be. "Gure herriaren zuztar eta izakerearen islada diranak. Sorginak, laminak, jentilak, pertsonaia misteriosu, xelebre eta magikoak ekarriko deuskuez gogorra ipuin honeek. Gure mitologiak eta antxinako jakinduriak itxi deuskuezan altxorrak" dino Alcelay bere webgunean. Maider Alcelay Arrasatekoa da eta herri horretako Doke antzerki taldeko kidea izan da.



JARDUNALDIA

Teknologiak eta gizartearen gaineko mintegia antolatu dabe Artean

Botilak daraman mezua ekimenaren barruan, Arteako Herriko Bentak teknologien eta gizarte emanzipazioaren gaineko mintegia antolatu dau zezeilaren 25erako.

Erredakzinoa

Hile honetako jarduerak be egun osoa hartuko dau eta bertan bazkaldu gura izan ezkerro, erreserbea egin behar da 94 602 88 55 telefonoan indabadarako.

Goizean, Albano Cruzek *We are tamagotchi: logika formalak, robotak eta nihilismoa ulertzen* izeneko berbaldia emongo dau. Albano Cruzek, batez be, diseinatzaile eta garatzaile lez egiten dau behar, baina bere interes eta talentuek zerikusia daukie filosofia aplika-duagaz, errazoibideakaz, logika formal eta informalagaz, antropologiagaz, hizkuntzalaritzeagaz, eta trans eta posthumanismoagaz, besteak beste. Musika kontzertuetan koordinatzaile moduan be egiten dau behar eta lantzean behin filosofian espezializautako hedabideetan idazten dau.

Arrastian, Cruzek eta Luis Montero, aholkulari eta formatzaileak, egungo subjektu politikoaren helburuaz, erantzukizun sozial barriez, komunidade baten sakabanatzeaz eta teknologiez egingo dabe berba.

BA AL DAGO ITXAROPENIK TEKNOLOGIETAN?

TEKNOLOGIEN ETA GIZARTE-EMANTZIPAZIOAREN MINTEGIA

11:00.

WE ARE TAMAGOTCHI: LOGIKA FORMALAK, ROBOTAK ETA NIHILISMOA ULERTZEN.

HIZLARIA: ALBANO CRUZ

14:30.

INDABADA (ERRESERBAK: 94 602 88 55)

16:30.

GAUR EGUNGO SUBJEKTU POLITIKOAREN HELBURUA: ERANTZUKIZUN SOZIAL BERRIAK; KOMUNITATE BATEN SAKABANATZEA ETA TEKNOLOGIA.

HIZLARIAK: LUIS MONTERO ETA ALBANO CRUZ

Otsailak 25. 25. Febrero. Arteko Herriko Benta

¿HAY ESPERANZA EN LAS TECNOLOGÍAS?

SEMINARIO DE TECNOLOGÍAS Y EMANCIPACIÓN SOCIAL

11:00.

WE ARE TAMAGOTCHI: COMPRESIÓN DE LÓGICAS FORMALES, ROBOTS Y NIHILISMO.

PONENTE: ALBANO CRUZ

14:30.

ALUBIADA (RESERVAS: 94 602 88 55)

16:30.

EL FIN DEL SUJETO POLÍTICO CONTEMPORÁNEO: NUEVAS RESPONSABILIDADES SOCIALES, DISPERSIÓN COMUNITARIA Y TECNOLOGÍA.

PONENTES: LUIS MONTERO Y ALBANO CRUZ

BOTILAK DARAMAN MEZUA

KONTAKTUAK

@HERRIKO.BENTA

@HERRIKOBENTA

HERRIKOBENTA.ARTEA@GMAIL.COM

946028855

JAIALDIA



Txaloka Antzerki Taldeak Diskopuntx umeentzeko jaialdia eskainiko dau Bedian

Erredakzinoa

Zezeilaren 21ean, martitzen karnabal, 18:30ean izango da frontoian Bediako Aratuste jaian.

Diskopuntx ikuskizuneko aurkezleek, irribarrez eta alaitasunez, zuzeneko *show* zoroa egingo dabe Bedian. Umeentzako jaialdi zoroa da. Prest ete dago Bedia, eurekaz "helduko diran erokeria guztietarako?".

Txaloka, umeentzako antzerkian eta kale antzerkian 2002tik lanean dabilan persona talde batek osotuten dau. De Traca, Txorromorro eta Depatitasalakalle taldekoek sortu eben Txaloka Antzerki Taldea 2014an. Umorezko hainbat ikuskizun ditue, jaialdi eta kale animazi-norako, batez be.

DUNBA

Energiaren fakturea

Igazko zemendian Goiener enpresako langile batzuk etorri ziran argindarraren faktureari buruzko azalpenak emotera. Bakotxak etxeko faktura bat eroan eban eta zelan ulertu erakutsi euskuen eta zelan aurreztu be bai.

Arratia BHI Institutua. Enara Gallastegi, DBH 4. maila

Energia iturri desbardinak dagozala azaldu euskuen, batzuk barritzagarriak eta beste batzuk ez barritzagarriak. Fakturearen atal bakotxak zehatz ze adierazoten dauan erakutsi euskuen, eta baita zenbat konsumiduten dogun zelan jakin be. Bertan, argindarra zelan heltzean dan gure etxeetara pausuz pausu ikasi genduan.

Ikasleontzat sano baliagarria izan zan fakturea ondo ulertzea, izan be etorkizunean fakturak ulertzeko beharra izango dogu. Azalpena sano aberasgarria izan zan eta asko ikasi genduan. Dana argi geunkala ziurtatu genduan, institutuan aholkularitza zerbitzu bat ipini genduan, bertako irakasleei argiaren fakturan aurretzen laguntzeko. Gura ebanak bere fakturea ekar eikean eta guk ikasitakoa aplikauz, fakturea ulertzen



eta ahal zan kasuetan aurretzen laguntzen geuntsen. Euren aldetik harrera ona izan genduan eta bezero nahikotxo etorri jakuzan. Lan hori eginaz, bezeroek emondako borondateagaz diru apur bat bildu genduan Arratiako Mankomunitadearentzat, familia zaurgarriak laguntzeko.

Amaitzeko, zezeilaren 7an ju-

bilauen txokora joan ginan eurei be fakturan aurretzen laguntzeko eta ikasitakoa erakusteko. Han be harrera itzela izan genduan, danak ikasteko gogoz agertu ziran eta guk ahal genduan ondoen lagundu genduzan. Norberaren konsumoa zelan begiratu daiteken azaldu geuntsen. Horrez gain, orduaren arabera energiak

daukan prezioa azaldu geuntsen, ordurik merkeenetan erabili ezke-ro aurreztu egin daiteke eta.

Ekintza honetatik asko ikasi dogula uste dot, ez bakarrik faktura energetikoaren inguruan, jenteari azalpenak emoten eta laguntzen be ikasi dogu. Holango ekintzek asko motibatzen gaitue eta parte-hartzea sustatzen dabe. Gainera, gauza garrantzitsu asko ikasi doguz, egunerokotasunean sano erabilgarri egingo jakuzanak.



AGENDEA

ZEZEILAK 15
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Negu osoan, baimendutako aparlekuetatik kanpo ez aparketako Gorbeia Parke Naturalaren konzieniazino kanpainea, bide bazterrak, zelaiak eta basoak babestuteko helburuagaz.

ARRATIA

Turkia, Siria eta Kurdistanen lurrikareak kaltetutakoei laguntzea eroateko janari bilketea Arratia Institutuan hilaren 16ra arte. Ongi Etorri Errefuxiatuak alkarteak antolatuta.

ARTEA

18:30ean, Arteako II. Berdintasun Planaren aurkezpena eta azalpenak Kultur Etxean.

BEDIA

17:00etan, Gorbeialde Landa Garapenak antolatuta, Aitziber Mendibilen liztor asiarraren gaineko berbaldia liburutegian.

17:30etik 19:30era, andren egunerako jardueren prestakuntza liburutegian.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Martiairen 18an izango dan Kolazino Mendi Eguneko 24 eta 16 kilometroko lasterketetarako eta 16 kilometroko mendi martxarako izen-emotea zabalik dago www.kolazinomendieguna.com webgunean.

Ikasgelaren zerbitzua Bete-beteka ikasgelan. Astelehenetik barikura 09:00etatik 16:00etara eta 19:30etik 21:30era; zapatu eta domeketan, 09:00etatik 21:00etara. Izena emoteko eta erreserbea egiteko 16:30etik 19:30era liburutegian. Txartela (giltza) personalizaua egongo da eta liburutegian jasoko da.

16:30etik 19:30era, hilaren 24ra arte, "Kirol Erronkak"en parte hartzeako izen-emotea liburutegian. Erronkak martiaren 3tik maiatzaren 26ra izango dira.

Hilaren 28ra arte, VII. Kolazino Egunean boluntario izateko aukerea. Izena emon kmebedia@gmail.com helbidean.

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia liburutegian.

DIMA

10:00etatik 13:00etara, Administrazioa zure ondoan ohiko izapide eta kudeaketei buruzko aholkuak udaletxeko pleno aretoan.

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera, liburutegia zabalik.

Turkia, Siria eta Kurdistanen lurrikareak kaltetutakoei laguntzea eroateko janari bilketea egiteko atzen eguna. Udaletxean, eskolan edo 17:00etatik 19:00etara frontoi txikian.

IGORRE

09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Mailegu zerbitzua, arrastiz astelehenetik eguenera eta

goizez barikuetan eta umeen jai eta opor sasoiari.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51 telefonoan.

Hilaren 18ko Inauterietako herri bazkarirako txartelak erosteko atzen eguna. Hegazkiñia eta Gau Lora tabernetan salgai. Nagusiek 16 euro (baba jana eta postrea) eta umeek 12 euro (makarroiak, solomoa eta postrea).

LEMOA

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 17ra arte, 16 urtetik gorakoek izena emon daikie www.lemoa.net webgunean, martiaren 27tik 31ra egingo dan bizikletan ibilten ikasteko ikastarorako eta 12 urtetik gorakoek, martiaren 5etik 26ra izango dan skate ikastarorako. Maila bi egongo dira skate ikastaroan, hasikerakoa eta maila aurreratua.

Martiaren 15era artean egiten dan erosketa bakotxeko 30 euroko 26 bonu zozketatuko dira komertzioetan.

ZEANURI

Izena emoteko atzen eguna telefono mobikorra errazago erabilteko ikastarorako udaletxean. Ikastaroa zezeil amaieran edo martian hasiko da, 10 ordu inguru eta 20 euro inguruko prezioa izango ditu. 55 urtetik gorakoentzako.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Binakako Futbolin Txapelketan izena emoteko atzen eguna. Izena 688 817 309 telefonoan emon, bikote bakotxak 4 euro ordaindu behar ditu. Txapelketea Amañen, Herrikoan eta Batzokian jokatu da zezeila eta martiako barikuetan. Lehen fasea ligatxo eran jokatu da eta bigarrena kanporaketa eran. Zeberioko Gazte Elkarteak antolatuta.



Country alternatiboa entzuteko aukerea egongo da Areatzan

Zezeilaren 25ean, 20:00etan, Lobo & Carmine taldeak kontzertua eskainiko dau Areatzako The Quiet Corner tabernan.

Taldea 2007an sortu zan eta Robert James Waller-en *Aires de la frontera* nobelatik hartu eban izena bikote gasteiztarrak. "Aurreretxi bako country-mex" moduan definituduten dabe euren musikea, eta berbei, kantuen alde melodikoari besteko garrantzia emoten deutsee.

ZEZEILAK 16
AREATZA

19:00etan, Jai Batzordea udaletxean.

BEDIA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia liburutegian.

17:30ean, 16 eta 18 urte bitarteko gazte eta euren familientzat etorkizuneko ikasketak aukeratuteko orientazino berbaldia liburutegian.

LEMOA

19:00etan, *Cabacas* liburuaren aurkezpena Karabie Gaztetxean.

ZEZEILAK 17
ARANTZAZU

18:00etan, kalejireea plazatik hasita; 19:00etan, Ogi Tostada Lehiaketea Herriko Tabernan.

ARTEA

19:00etan, Kokomarroen Aratuste kalejireea eta ostein Kuberue erreko dabe.

DIMA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua frontoi txikian; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

Dimako Aratusteak. Gaia: animaliak. 17:00etatik 18:30era, 4 eta 12 urte bitartekoentzat, Altxorarraren bila; 20:00etatik 21:00etara, 13 eta 17 urte bitartekoak; 18:30ean, txokolatea frontoi txikian; 18:30etik 20:15era, Orkresta Elektrotuna Elektrotxarangea frontoi txikian; 20:15etik 21:30era, poteoa Orkestra Elektrotunagaz tabernetatik.

IGORRE

17:00etan, kalejireea herrian zehar eskolatik hasita; 18:00etatik 19:00etara, Mugi zaitez disko festa Kultur Etxeko plazan; 19:00etan, txokolatea Kultur Etxeko plazan; 19:15ean, euskal jantza tailerra Kultur Etxeko plazan; 20:00etan albokariak herrian zehar.

UBIDE

18:30ean, Aratusteetako desfilerako

pasarelearen prestaketea udaletxean.

ZEBERIO

Aratuste jaia. Gaia: Lantzeko Ihauteriak. 18:00etan, txokolatea; 19:00etan, Lantzeko zortzikoa, jantza-plaza eta musikea.

ZEZEILAK 18
ARTEA

21:30ean, Mikey Boy and The Yee-haws country rock kontzertua Herriko Bentan.

DIMA

10:00etatik 13:00etara, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, *Sortu zure oihalezko konpresa* tailerra Elexalde geletan.

IGORRE

12:30ean, kalejireea herrian zehar Garbetik hasita; 16:00etan, Inauterietako herri bazkaria eskolako aterpean; 17:00etatik 19:30era, erromeria Fan&Go taldeagaz, tartean sari banaketea. Astean zehar ludotekan moztorroak egingo dira.

LEMOA

10:30etik 13:30era, Arratia Garbia informazino puntua estankoaren ondoan.

17:00etatik 20:00etara, Haurrentzako Inauteri Festa kiroldegian. Ohe elastikoak, txokolatea, diskofesta, jolasak...; 20:00etan, Orkresta Elektrotruna Elektrotxarangeagaz poteoa herriko tabernetatik, Bikanditik hasita.

UBIDE

17:30ean, moztorroen desfilea eta sari banaketea. Ubideko Inauteriak. Gaia: pelikulak, serieak...

ZEZEILAK 19
IGORRE

17:00etan, Zinuema, *Elkano. Lehen munda bira* animazinozko filma euskeraz; 19:30ean, zinea, *El peor vecino del mundo*. Lasarte Aretosan.

ZEZEILAK 20
ARTEA

18:00etan, Ostomila Txotxongilo Taldearen *Alaia Galtzagorria* mitoen bidaia Kultur Etxean.

BEDIA

17:15etik 19:15era, Inauterietako tailerrak: apaingarriak. Ateak zabalik ludotekan.

DIMA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua frontoi txikian; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

ZEZEILAK 21
AREATZA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

ARTEA

17:30ean, Arteako jubiladuen alkarteko Batzar Orokorra Kultur Etxean.

BEDIA

Inauteri jaia. 17:30ean, sarrerea, *photocall* eta desfilerako izen-emotea frontoian; 18:00etan, desfilea herrian; 18:30ean, *Diskopuntxi* ikuskizuna; 19:30ean, txokolatea.

ZEZEILAK 22
AREATZA

10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

LEMOA

18:30ean, 4 eta 8 urte bitarteko umeentzat, Maider Alceayren *Bazen behin herritxo batean...* ipuin kontaketea

Kotxepinen.

ZEZEILAK 23
IGORRE

18:00etatik 19:30era, *Arteterapia* tailerreko bigarren saioa Kultur Etxean.

UBIDE

16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

ZEZEILAK 24
ARTEA

19:00etan, Irakurleen Txokoa. Ruben Ruizen *Beti mugan*.

BEDIA

18:15ean, astegoieneko eski urtekerea Baqueirara udaletxe ondoan.

DIMA

18:30ean, *Liztor asiarrak eta erleak* berbaldia. Pleno aretoan.

22:00etan, Dimetaleroak Kultur Elkarteak antolatutako kontzertuak. El exterminio de la raza del mono, Aramaixoko Spiz-punk eta Galazota Arratiako punk-rock taldeak Abaroa aretoan.

UBIDE

16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua plazan; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

ZEZEILAK 25
ARTEA

Ba al dago itxaropenik teknologietan? Teknologien eta gizarte-emanzipazioaren mintegia. 11:00etan, Albano Cruzen berbaldia *We are Tamagotchi: logika formalak, robotak eta nihilismoa* ulertzen; 14:30ean, indaba-jana (erreserbak 94 602 88 55 telefonoan), 16:30ean, Luis Montero eta Albano Cruzen berbaldia *Gaur egungo subjektu politikoaren helburua: erantzukizun sozial berriak; komunitate baten sakabanatzea eta teknologia* Herriko Bentan.

AREATZA

Parketxeak antolatuta, mendi ibilbidea: Areatza-Upo-Mendigana-Areatza, Areatzako martxearen zati bat. Izena emon 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean.

DIMA

10:30etik 13:30era, Arratia Garbia informazino puntua frontoi txikian.

LEMOA

19:00etan, ATX Teatroa antzerki konpainiaren *Balbea* bakarrikzakea Kotxepin Kultur Etxean.

ZEZEILAK 26
IGORRE

17:00etan, zinea, *Kung Food*; 19:30ean, *Babylon*. Lasarte Aretosan.

ZEZEILAK 27
LEMOA

16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua Estankoaren ondoan; 19:00etan, berbaldia Kotxepin Kultur Etxean.

ZEZEILAK 28
ARTEA

18:00etatik 20:30era, *Plazerra izango da ala ez da izango* ikastaroko saioa Kultur Etxean.

LEMOA

16:00etatik 19:00etara, Arratia Garbia informazino puntua Estankoaren ondoan; 19:00etan, berbaldia udaletxean.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA
Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).
GARAJEA ALOKATZEN DOT
Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.
FURGONTEA SALTZEAN DOT
1998 urteko Peugeot Boxer furgonetea, egoera onean, saltzean dot. Interesdunek deitu telefono honetara: 688 638 906.

LANA GARBIKETA LANAK
Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketak egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.
GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ
Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean.

Interesdunek deitu 664 303 528.
KLASEAK EMOTEN DODAZ
Piano klase partikularrak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. Interesdunek 629 461 077 telefonora deitu.
TABERNARI BILA
Axular Herriko Tabernan lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek tabernan bertan galdetu, axularke@gmail.com helbidera idatzi edo telefonoz deitu daikie.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Alvaro Rabelli eta Jose Carlos Torreren **Frantziako Dama** liburu bana.

Iker Zamakona (Areatza)
Inma Sagarna (Zeanuri)



2 Kotxe pin Kultur Etxeak emondako bina **sarrera Bazen behin herritxo batean...** ipuin kontaketarako.

Iratxe Gondra (Igorre)
Maitane Uriarte (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus



INAUTERIAK

Igorre 2023

MOZORROA JANTZI, DISFRAZA ETXEAN ITXI!

FAMILIEN ETA LAGUN ARTEAN JAI GIROAN!



IGORRE
Danon herria
Danon dukera

IGORREKO UDALA, ARRATIKO ZEKORRAK
RUGBY TALDEA, INAZIO ZUBIZARRETA GURASO
ELKARTEA, ARANTZARTE JANTZA TALDEA, BIZI
IGORREN 2030, ZAZTAPARRAK, BERBALAGUN.

begitu 20^{urte}

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____

Kontu korrontearen zenbakia: ES _____

Aukeratu urteko kuotea: ☐ 35€ ☐ 55€ ☐ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.